

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 122/2019 Erabakia, otsailaren 26koa. Onestea 2019an lehen aldiz banatzea NekazAraba sariak, Araban lehen sektoreko jarduerak ezagutzera emateko eta horien garrantzia nabarmentzeko

Araba lurralde historiko bat da kalitatezko elikagaiak ekoizten dituen nekazaritza eta abeltzaintza tradizio handia daukana, eta nabarmen eragiten diona gizarte eta ekonomia garapenari, ingurumena kontserbatzeari, populazioa eusteari eta landa kulturari. Arabako lehen sektoreak jakin du, urteek aurrera egin ahala, besteak beste Nekazaritzako Politika Bateratutik, merkaturen globalizaziotik eta kontsumitzaileen eskari berrietatik eratorritako erronka gero eta zorrotzagoei egokitu eta haiei aurre egiten.

Arabako Foru Aldundiak eta Nekazaritza Sailak badakite zer balio estrategiko daukan lehenengo sektoreak lurraldea egituratzean, enplegua sortzean eta kalitatezko ondasun eta zerbitzuak ematean; hartara, ekarpen hori esplizituki aitortu eta haren alde egiten dute. Horretarako, egoki irizten zaio aitorten bat egiteari NekazAraba izenarekin, balioko duena Arabako nekazariak eta lurraldeko talde eta enpresek egunero egiten duten eta Arabako landa ingurunea eta toki erakundeak garatzeko hain eragile garrantzitsua den lanari balioa emateko eta hura ikusarazteko.

NekazAraba aitortzen bidez, aldundiaren xedea da urtean bitan Arabako pertsonak, erakundeak edo produktuak nabarmentzea, lau kategoriatan banatuta: Berrikuntza, elikagaien bikaintasuna, lanbide ibilbidea eta landa garapena.

Lehenengo edizio honetan, Arabako Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak erabaki du hauexei aitortzea NEKAZARABA 2019:

Berrikuntza kategorian, Hernando Sasigain Elorzari, Arbulukoa, etengabe lanean ari delako familiaren nekazaritza ustategia modernizatzearen alde eta ureztaketako baratze ekoizpen berriak sartzeko, lurraldeko ekoizpen tradizionalari buruz gehiago jakinez eta hari balio erantsi handiagoa emanez.

Elikagaien bikaintasunaren kategorian, GARLAN sozietate kooperatiboari, zeina, sortu zenetik, gidatu baitu bere prozesuen kudeaketa, kalitatea eta gobernantza hobetzeko eta optimizatzeko izan duen ziurtasunak, eta zerbitzua eta bere bazkideak lotu ditu, beren bezeroen eskariak asebetetzeko, hala bere produktuak merkatu gero eta globalizatu eta lehiakorragoetan merkaturatzea bermatu duelarik.

Lanbide ibilbidearen kategorian, bi aitorten ematea erabaki da. Bata Miguel Ortiz de Zarateri, Lagunak behi esnea ekoizten duen eta Elosun dagoen kooperatibaren sortzaileari, esne sektoreari bizitza guztia emateagatik, liderra izanda haren modernizazioan eta hura ahalbidetuta eta mantenduta genetika hobetzearen eta sektorean elkarrekin sortzearen bidez. Eta bestea Gure Soroari, Arabako Emakume Nekazarien Elkarrekin independentea, Arabako nekazaritza sektoreko emakumeen prestakuntza, sustapen eta ikusgarritasunaren alde lan egiteagatik eta haiekiko konpromisoagatik, eta landa zonetan bizi kalitatea hobetzen laguntzeagatik.

Landa garapenaren kategorian, Izarrako Goiuri gozo dendari. Gozo denda txiki bat da, Leire Belaustegi du buru, eta Euskal Herriko gozogintza tradizionalaren adibide den arren gozogintza modernorantz eboluzionatzen ari da gozoki bikainak eginez kalitatezko ekoizpena eta zaporea uztartuta; gainera, haren garapenean, eskualdeko ekonomia jarduera sortzea ahalbidetu du.

2019ko martxoaren 4an, Arabako Foru Aldundiak aitortpenak banatuko ditu, Dulantziko Micaela Portilla Kultura Etxearen ekitaldi aretoan horretarako egingo den ekitaldi batean.

Horregatik, apirilaren 8ko 23/2008 Foru Dekretuak, Arabako Foru Aldundiaren ohore eta goraipamen arautegia onartzen duenak, bere 11. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Arabako diputatu nagusiak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Nekazaraba aitortpena ematea Hernando Sasigain Elorzari, Garlan sozietate kooperatiboari, Miguel Ortiz de Zarateri, Gure Soroari eta Goiuri gozo dendari, egin duten lanbide ibilbideagatik eta berrikuntza eta bikaintasunaren bidez Arabako Lurralde Historikoko nekazaritza eta landa garapenari egin dioten ekarpen eta bultzadagatik.

Bigarrena. Aitortpena 2019ko martxoaren 4an emango da, horretarako berariaz antolatutako ekitaldi batean.

Hirugarrena. Domina eman izana Arabako Foru Aldundiaren Protokolo eta Harreman Publikoetarako Zerbitzuari atxikitako ohore eta goraipamenen erregistroan inskribatzea, dagokion atalean.

Laugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Gasteiz, 2019ko otsailaren 26a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZALEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Diputatu Nagusiaren Kabinetearen jarduneko zuzendaria

ELENA FERREIRA SEBASTIÁN